

euskaldunon istorioak

JOAN den asteartean, 110 urte bete ziren Markinako Barinaga auzoan, on Jose Mari Arizmendiarieta Madariaga zena jaiotzeko. Iturbe etxeko semea 1915eko apirilaren 22an jaio zen, eta mende eta harean ondoren, egungo gure Euskal Herrian, haren nortasun, egin-asmo eta lorpenak gogoan hartzea aberasgarria zaigu. Izan ere, Arizmendiarieta euskal apaiz, pentsalari eta eragilea izan zen, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren sustatzaile nagusi, eta haren eginkizunei kontu egitea gertuko iraganari heltzea da.

MARKINA ETA ARRASATE ARTEAN

Bizitzaren lehen urteak etxekoez eta herrikoiez inguraturik egin zituen Arizmendiarietak, eta eskolak Barinagako auzo-ikastolan bertan hartu. 12 urterekin, sorotan eta azientadan ugaria zen Iturbeko etxejaun izateko eskubidea alboratu eta apaiztegi bidea hartu zuen. Hala, 1927an Gaztelu-Elexabeitiako seminario txikira joan zen, humanitateak ikastera, eta ondoren, 1931n, Gasteizko seminario nagusira, ikasketak klasikoak amaitu eta filosofian eta teologian trebatzera.

Sasoi hartan European ondo aberatsa zen Gasteizko Seminarioan, Arizmendiarietak bere pentsamendurako eta gogorako oinarriak ondo jarri zituen. Hiru dira nabarmenekoak: santutasunera zuzendutako erabateko apaiz-bidea, Euskal Herriaren zapalketaren eta tradizio kultural eta intelektual propioaren argibidea, eta modernitateari neurria hartzeko irakasbidea. Oinarri horien gainean, Arizmendiarietak apaiz organikoaren izaera garatu zuen: bere herrian sendo kokatua eta konprometitua, gabezia transzendentente, sozial eta material oro osatzeko lanetan etengabe murgildua.

36ko gerraren hasierak Markinan hartu zuen, uda sasoiaren, eta Euzko Gudarostera batu zen. Txikitatik zeukan ikusmen urritasunagatik eta Gasteizen euskal letretan irabazitako maisutasunagatik, Bilbon aritu zen, euskara hutsez lehena izan zen Eguna egunkarian. 1937ko udan, hiria frankisten eskutan zela, Larriagako kartzelako gaiztakeria gertutik ezagutu zuen, baina bizirik irten zen.

Heriotza aurretik kendurik, laster Burgosera agindu zuten. Frankisten lerroetan, artilleria kuartelean aritu zen, kudeaketa lanetan, eta ikasketekin jarraitu eta Bergarako Seminario berrian teologia mailak gainditzeko bidea aurkitu zuen. Sua bukatutakoan, Gasteizera itzuli, ikasketak amaitu, eta 1940ko abenduan apaiz egin zen, Mateo Muxikaren ordean gozain izendatutako Francisco Javier Lauzurikaren bidez.

1941eko urtea hastearekin, meza-berria eman zuen Markinako San Pedro elizan. Lovainara soziologia ikastera joateko eta gizarte gaietan ondo trebatzeko asmoari uko egin behar izan zion laster, ordea, Lauzurika gotzainak Arrasate behartsurako izendatu baitzuen koadjutore, Jose Luis Iñarra parrokoarekin

Gaur egungo ikuspegitik zenbait konturekin kritikoak izan beharra dugula. Baina Arizmendiarieta gai izan zen herriari garaira egokitzen laguntzeko, balio-iturrien jagole eta erakusle izan baitzen. Hau da, sakoneko hezkuntza ulertu eta ematen saiatu zen. Eta gaur, gurean, sustrai sendoko ideiak elikatze gaitasuna eta ereduak behar ditugu

Jon Mentxakatorre Odriozolaren erreportajea

On Jose Mari Arizmendiarieta, Euskal Pizkundeko seme




Arizmendiarieta heldutan.



Liburuaren azala.

batera. Eliz-hierarkiaren mailarik baxuenetan, San Juan Bataiatzaileko ardura 35 urtez izan zuten biek, 1941eko otsaila hasieratik 1976ko udazkenera arte. Iñarra urriaren 2an hil zen; Arizmendiarieta arazoaren 29an.

Urte haietan guztietan, on Jose Mari behartsuari bere burua zaintzen irakatsi zion, eta, batez ere,



Bizikletaz.

garapenerako erakundeak eratzen lagundu zuen. Baina Arizmendiarietak sustatutako garapena ez zen ongizatera mugatzen; sorburu, arrazoibide eta helburu sakonagoak zeuden beti hark jorratutako eremuetan. Hala, arloa hezkuntza, kirola, kultura, industria, ekonomia, fedea zein osasuna izan, pertsonaren eta komunitatearen barne abe-

rasasuna handitzeko bide eta erakundeak bultzatu zituen. Horren adibide dira, asko eta askoren artean, 1943an sortutako Eskola Profesionala eta 1948an eratutako Hezkuntza eta Kultura Liga.

Horixe da, hain zuzen, Arizmendiarietak hauspotutako Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren ekarpen berezia: kooperatibagin-

tzak izaera herrigilea du, herrigintza gizakiaren erabateko garapenean oinarritzen da, eta gizagintzak iturri espiritual garbiak dauzka. Hau da, Arizmendiarietaren enpresagintza eraldatzailea erabateko pertsonagintzaren baitan kokatzen da. Horregatik hain zuzen ere, oraingo Euskal Herrian, adibide horren sakontasunari erreparatzea garrantzitsua zaigu, egungo erronkak ugariak eta handiak baitira.

BALIO-ITURRIEN JAGOLE ETA ERAKUSLE

Urteak joan dira, eta Arizmendiarietak ereindakoak uzta eman du. Ekarpinak asko dira. Baina modernitateari neurria hartu eta duintasunean oinarritutako proposamen esanguratsuak egiteko zailtasunak ere ugaritu dira. Izan ere, ideien, balioen eta egiteko moduen transmisioak ez du epe luzera irauten haien iturriak ere erakusten ez badira. Egiari zor zaion begirunea edo norbere hitzari zor zaion erantzukizuna urtu egiten dira pertsonaren dimentsio argi eta ukiezina galtzen badira. Demokraziaren balioak usteldu egiten dira demokraziaren iturria komunitatean zaintzen ez bada. Arizmendiarietak, bere lerroan, hauxe zioen: lehengo pertsona hezi behar da, kooperatibista landu gero, eta kooperatiba eratu ondoren.

Horregatik, Arizmendiarietaren

1927an Gaztelu-Elexabeitiako seminario txikira joan zen, humanitateak ikastera, eta ondoren, 1931n, Gasteizko seminario nagusira

Euskal letretan irabazitako maisutasunagatik, Bilbon aritu zen, euskara hutsez lehena izan zen 'Eguna egunkarian'

esan-eginetara itzultzea aberasgarria zaigu. Badakigu hark lan egin dako sasoia beste bat zela, eta gaur egungo ikuspegitik zenbait konturekin kritikoak izan beharra dugula. Baina Arizmendiarieta gai izan zen herriari garaira egokitzen laguntzeko, balio-iturrien jagole eta erakusle izan baitzen. Hau da, sakoneko hezkuntza ulertu eta ematen saiatu zen. Eta gaur, gurean, sustrai sendoko ideiak elikatze gaitasuna eta ereduak behar ditugu.

Hori dela eta, badira Arizmendiarietaren inguruan jakin beharreko hainbat kontu. Alde batetik, 36ko gerra aurreko Gasteizko Seminarioko ikasle izan zela, han zegoen mugimendu espiritual, zientifiko eta euskalgile betean. Bestetik, han eratu zen, eta goi mailako ikasketetan Euskal Eskolarako eremua sortu zuen Kardaberaz Bazkuneko eragile handienetakoa izan zela. Eta azkenik, irakasle izan zuten Joxe Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Juan Thalamas eta Eduardo Ezkartzaga, besteak beste, Euskal Pizkundeko izen handiak izan zirela.

Euskal Pizkundera, beraz, mugimendu espiritual eta zientifikoa ere

euskaldunon istorioak



36ko gerran.

izan zen, politiko eta kulturala izateaz gain. Arizmendiarietak orduan garatu zuen bere pentsamendua, orduan finkatu zituen haren oinarriak eta bere egin iturriak. Izan ere, Gasteizko Seminarioan, modernitateak orduan zeuzkan erronkei neurria hartzeko ahalegin bizia aurkitu zuen, kristau apaiz-bidez eta euskal pentsamenduz.

Modernitateak erronkak dauzka soziologian, demografian, kulturean, industrian, ekonomian, ohituretan... lehen eta orain. Baina gogoeta behar handiena haren oinarrian dagoen munduaren ikuspegi immanentean dago, eta hura osatu eta giza existentzia aberasteko antropologia transzendentea bideratzen ikasi zuen Arizmendiarietak Gasteizen, pertsonengan oinarritutako komunitategintza ipar.

Horrez gain, gure euskal tradizio propioaren azterketa egiten eta horren emaririk egokiena sintetizatzen eta egokitzen ikasi zuen. Hala, iraganeko euskal pentsabide eta eginbideak demokrazia eta autoeraketa terminotan ulertzen ikasi zuen, eta, gerora, kooperatibagintzan formulatzen asmatu.

Eta azkenik, erabateko konpromiso soziala duen eta santutasunera zuzentzen den apaizbidea ikasi zuen. Arizmendiarieta San Juan Bataiatzailea elizako parrokoaren laguntzaile izan zen 35 urtez Arrasaten, 1941etik 1976an hil zen arte, eta bertako Esperientzia Kooperatiboaren eragile eta sustatzaile nagusi ere izan zen, lehen esan bezala.

GIZABIDEAREN IRAKASLE Arizmendiarieta eskakizun pertsonal han-



Irrifartsu.

diko bilatzailea izan zen, eta 36ko gerraren ondoren, 1941ean Arrasatera heldutakoan, Euskal Pizkundearen argitan Gasteizko Seminarioan ikasitakoari bide eman zion. Horregatik, haren arnas luzeko eraldaketa proiektua pertsonen esen-

On Jose Marik behartsuari bere burua zaintzen irakatsi zion, eta, batez ere, garapenerako erakundeak eratzen lagundu zuen

Sakoneko hezkuntza ulertu eta ematen saiatu zen. Eta gaur sustrai sendoko ideiak elikatzeko gaitasuna eta ereduak behar ditugu

tzia zuzendutako hezkuntza izan zen, gizakiaren bere-berezko duintasunean eta transzendentziarako irekiduran oinarritutako pentsamenduan.

Arizmendiarietaren ekimena, beraz, ez zen lanaren bestelako ikuspegi eta antolaketa hutsa izan. Deshumanizazioa ekar dezakeen modernitatearen aurrean, gizabidea sustatu zuen, eta jendeari bizitzaren zentzuaren ortzi-mugak aldatu egin zizkion. Norberaren dohainak landu eta gainerakoan mesedetan jar zitzan bideak iradokitzen zituen, gizabanakoa inolako makina huts edo inongo maki-neriaren atal izan ez zedin.

XX. mende beteko giroan filosofikoki jarduten jakin zuen Arizmendiarietak, hortaz, eta horren onena argi azaltzen. Ondorioz,

IDAZLEA

JON MENTXAKATORRE



ODRIOZOLA

Filosofian doktorea da, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta UEUko Filosofia sailburu.

Arizmendiarieta, gizagile eta herrigile (IDTP, 2024) liburuaren egile da, Arizmendiarieta Kristau Fundazioaren webgunean doan eskura daitekeena.

indibidualismoaren eta kolektibismoaren artean, iraultzaren eta erreformismoaren artean, lanaren bidezko pertsonaren eraldaketaren bidea ireki zuen. Komunitatearen garapenerako espazioak, egiturak eta erakundeak eratzen bikaina izan zen. Edozein arazoren aurrean, aldeko testuingurua inoiz ere izan gabe, pertsonak bide propioari ekin diezaioten zirrikitua aurkitzen lagundu zuen.

Arizmendiarietaren kooperatibagintza, labur, hori berori baino ez da: indibiduoaren askatasunaren izenean ezberdintasunak sortzen dituen kapitalismo liberalaren eta berdintasunaren izenean giza askatasuna mugatu egiten zuen sozialismo errearen artean, Euskal Herriko tradizioan sustraiak dituen autoeraketarako formula.

Izan ere, gizabanakoek etxearen alde, etxeek auzoaren alde, eta auzoek herriaren alde egitea berezkoa da kultura tradizionalan. Horrek bere baitan dauka gizakia bere destinoaren jabe izatearen zentzua, modernitatean sarri falta daitekeena. Ondorioz, lantegia lan komunitatea da, lan komunitatea herriaren baitan dago, eta herriek gizadia osotzen dute.

Zertan ari zen, hortaz, apaiz, erabateko apaiz, zen Arizmendiarieta? Munduari modernitateak inongo eremutan eman ezin ziona bideratzen: misterioaren eta transzendentziaren argia, eta euskal tradizioan haren arabera ezagututako gizabidea. 2025eko apirilean, haren nortasun eta ekarpenak gogoan hartzea interesgarria zaigu. ●



**JAKIN
ESCAPE ROOM**

**HISTORIA ZURE ESQUETAN
LA HISTORIA ESTÁ EN TUS MANOS**

Aukeratu bi misio hauen artean eta bihur zaitez agente sekretu!! ¡¡Elige entre estas dos misiones y conviértete en agente secreto!!



Operación Ikerria



Operación Bond Alburu

Gertaera historikoetan oinarritutakoak. Aukeratu: euskaraz edo gaztelaniaz. Basados en hechos históricos. Elige el idioma: euskera o castellano.

NON GAUDE? ¿DÓNDE ESTAMOS?

Tere Verdes Pasabidea z/g. Pasaje Tere Verdes s/n
48007 Bilbao
Sabino Arana Fundazioa

747 488 000
escaperoomjakin.eus

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 12:00etara eta 17:30tik 20:30ra. Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 13:30ra eta 17:30tik 20:30ra.

HORARIO: De martes a viernes de 10:00 a 12:00 y de 17:30 a 20:30. Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 13:30 y de 17:30 a 20:30.



sabino arana fundazioa



Euskarazko Kulturaren Erakundeak



EUSKARAZKO KULTURAREN ERAKUNDEAK